

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROZESUETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA INGURUMENAREN BABESA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0180		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Ekoizpen mekanikoa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko ekoizpena	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Fabrikazio mekanikoko prozesuen gainbegiraketa eta kontrola	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Fabrikazio mekanikoko prozesuetako antolakuntza (Zeharkakoa)	Iraupena	30
	Fabrikazio mekanikoko prozesuen gainbegiraketa eta kontrola (Zeharkakoa)	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0592_3 FABRIKAZIO MEKANIKOKO EKOIZPENA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauen artean fabrikazio mekanikoko prozesuen kudeaketan aplikatu beharrekoak aztertzea.

EI1.1 Ekoizpenaren gainbegiratzeari aplikatu beharreko laneko arriskuak prebenitzeari buruzko indarreko araudia aztertzea.

EI1.2 Ekoizpenaren gainbegiratzeari aplikatu beharreko ingurumena babesteari buruzko indarreko araudia aztertzea.

EI1.3 Istripuak aztertzeo prozesuak deskribatzea.

EI1.4 Fabrikazio mekanikoko prozesu batean:

- Laneko arriskuak prebenitzeko arauak identifikatzea.
- Prozesuaren arriskuak identifikatzea, eta istripuren bat izanez gero egin beharreko jarduerak deskribatzea.
- Istripuak saihesteko neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Aplikatu beharreko ingurumena babesteko arauak identifikatzea.
- Fabrikazio-prozesuan ingurumenari kalte egin diezaioketen jarduerak eta haiek saihesteko moduak identifikatzea.

EI1.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan laneko istripu batean:

- Jarduera-argibideak deskribatzea.
- Istripuaren kausak aztertzea.
- Makinak, ekipoak eta instalazioak hobetzeko prebentzio-neurriak eta prebentzioan eta babesean jarduteko neurriak proposatzea.

EI1.6 Ingurumen-eraso bat eragin duen istripu baten simulazioan:

- Jarduera-argibideak deskribatzea.
- Istripuaren kausak aztertzea.

Zuzentzeko neurriak eta jarduera-neurriak proposatzea, kausak saihesteko eta ondorioak murrizteko.

Edukiak

1. Fabrikazio mekanikoko ekoizpen-prozesuetako laneko arriskuaren prebentzioa.

- o Arrisku-faktoreak.
- o Arrisku ohikoenak.
- o Prebentzio- eta babes-neurriak.
- o Prebentzio- eta babes-teknika orokorrak.
- o Jardueren azterketa, ebaluazioa eta proposamena.
- o Istripuen azterketa.
- o Istripuen kausak.
- o Jarduera-lehentasunak eta -sekuentziak istripu-kasuetan.
- o Zuzentzeko neurriak.
- o Fabrikazio-prozesuak gainbegiratzeari aplikatu beharreko araudiaren azterketa.

2. Ingurumenaren babesa fabrikazio mekanikoko ekoizpen-prozesuetan.

- Ingurumen-kudeaketa.
- Hondakinen tratamendua.
- Fabrikazio-prozesuak gainbegiratzeari aplikatu beharreko araudiaren azterketa. Ingurumen-erasoak minimizatzeko/ezabatzekeo jarduerak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko ekoizpena.